Aldiri, 2018, III, **35**, 19-21, ISSN 1889-7185

ARTIKULU ZIENTIFIKOA

Ekonomiaz eta lurraldeaz birjabetzeko tokiko aukerak landu

Laburpena

Ekonomia kontzeptua gaizki erabiltzen dugu, gure gaitzen iturburu moduan, hitza desjabetu digute, lurra bezala. Ekonomia jendartearen eta lurraldearen beharrak asetzeko eraiki dezakegu ordea, praktika konkretuekin. Oarsoalde postindustriala adibide, birjabetzerako lan-ildoak proposatuko ditugu.

Gako-hitzak: ekonomia, garapena, lurraldea, desjabetzea, estrategia

Abstract

The concept «economy» is usually misused, as if it was the source of our evils. The word has been expropriated as well as the land. But we can build an economy through concrete practices so that it responds to the needs of citizens and the territory. Taking post-industrial Oarsoaldea as an example, we will propose lines of work for the reappropriation of the economy.

Keywords: economy, development, territory, dispossession, strategy

Beñat Irasuegi Ibarra

Langile kooperatibista Talaios Kooperatiban. Ekonomia soziala eta dena eraldatzen Olatukoopen.

Bidaltze data: 2018-9-20
Onartze data: 2018-10-08

Ekonomia berreskuratu

Ekonomiaren ulermena eta eraikuntza sasi-zientifikotasun eta konplexutasun laino beltz batek estalita sentitzen ditugu. Bizitza propioa duen izate bat balitz bezala, bere gurariek eta aldaketek gure eguneroko bizitzan eragiten dute, lana, zerbitzu publikoak, espazioa, teknologia eskuragarriak, produktu kontsumigarriak, ingurumen-eraginak, migrazioak eta beste hamaika aspektu bere menpe hartuz. Hortaz, gure bizitzak baldintzatu, baina zeresanik ez dugun zerbait izan ohi da.

Ekonomiak esanahi bikoitza du. Alde batetik, Economipediako definizioaren arabera (Economipedia, 2018), «giza beharrak asetzeko eskuragarri dauden baliabideen administrazioa aztertzen duen gizarte zientzia da. Gainera, gizakien portaerak eta ekintzak aztertzen ditu». Horrez gain, gizarte batek behar horiek asetzeko aurrera eramaten dituen jarduerak antolatzeko sistema bera ere da ekonomia, definizio klasikoagoan. Zein momentutan bihurtu da ekonomia horren urrun geratzen den kontzeptu eta tresna? Hitza eta tresna desjabetu digute, beste hainbat gauza bezala.

Sarean Aldiri aldizkariaren gonbidapen irekia ikusi genuenean argi izan genuen bagenuela guk ere zeresana gai honetan, kontzeptua berreskuratzeko, eta desjabetze-prozesu historikoetan horren garrantzitsuak diren lurren eta espazioaren inguruko gaiak lantzen diren tokian, ekonomiaz aritzea oso garrantzitsua iruditzen zaigulako. Ez gara arkitektoak, baina badakigu espazioaren ustiaketa kapitalistak lurraldean eta gure bizitzetan duen eragina identifikatzen.

Badakigu historian zehar lurrarekin, lan-indarrarekin edo ezagutzarekin izan diren desjabetze-prozesuek gaur egun oraindik jarraitzen dutela. Desjabetze moduak aldatu dira agian, munduaren gaur egungo konplexutasunak zailagoa egiten du prozesu hauek ulertzea. Orain arte izan den bezala, lurrak, jabetza-ereduak, ekonomiak, aberastasunaren sorkuntza eta banaketak, harreman sozialek, kulturalek... lurraldean hartzen dituzten formek gure egunerokoan eta etorkizunean zuzeneko eragina dute.

Marxek azaldu zuen lehenik zehatz (Marx, 1867), kapitalismoaren metaketa-prozesuak jatorrizko desjabetzea beharrezko duela, eta gaur egun David Harvey hirigileak (Harvey, 2006) edo Silvia Federici feministak (Federici, 2017) garatu dute errealitate hori arlo ezberdinetatik. Horregatik, desjabetzea prozesu historiko bat dela eta gaur egun egunerokoan gure herri, kale eta bizitzetan gertatzen ari dela konturatzea oso garrantzitsua bihurtu da. Izan ziren komunalen pribatizazioak, gero baserri idealizatu bihurtu ditugunak. Matxinadak eta erresistentziak izan dira, industrializaziorako nekazaritza-lurrak galtzen ikusi ditugu, baina gaur egun postindustrialean, hiria bihurtu da espazioaren jabetzaren inguruko konfrontazio-gunearen erdigune. Ederki ikusten dugu turismo kapitalista harrapariak hirietako espazio eta bizitzetan duen eragin kaltegarria, desjabetze eta ustiaketa intentsiboaren bitartez. Ekonomia da bai! (1. irudia).

Gaur egun ekonomiaren ikuspegi neoliberalak ekoizpen-prozesuen eta jabetza-eredu pribatuaren bitartez lurraldearen diseinua determinatzen du. Espazioaren diseinua herritarron erabakitzeko ahalmenetik urruntzen

Aldiri, 2018, III, **35**, 19-21, ISSN 1889-7185

1. irudia ~ *'Antonio ontzia urperatu ondoren garraiatua izaten Pasaiako portuan.*
Egilea ~ Ricardo Martín. Wikimedia Commons. Jabetza Publikoa.

du, lurraldearen antolaketa eta ekonomia interes berdinen esku utziz. Bidean ekonomia kontzeptua bera desjabetu digute. Hau guztia aldatzeko ordua da.

Komunal berriak sortu behar dira, lurra kolektibizatuz, modu askotan: publifikatuz, Lurzaindia bezalako proiektu komunitarioekin edo okupazio autogestionarioaren bitartez; berdin komunal digital, ezagutza edo bizitzarako beharrezko ditugun baliabideekin. Ekonomia kontzeptuaz birjabetu, eredu eraldatzaile berriak landu eta ekonomia herritarrontzat berreskuratu behar dugu, baina non eta nola egin hori?

Tokiko begirada landu, eragileak saretu eta bizitzeko lurraldeak sortu

Oarsoaldea, Pasaiako Badia, Oarso Postindustriala da guk jarduera ekonomikoa egin eta bizi garen tokia. Historian zehar itsasora begira eta gero industrializazio sakona fase ezberdinetan bizi izandakoa. Beti kapitala kanpotik etorri izan da jarduera ekonomikoa garatzera, eta guk bertako biztanleok, erabaki gutxi hartzeko aukerarekin, testuinguru horretan lan egin izan dugu. Gure ingurune soziala, harremanen sarea, espazioa, lurraldea, ekonomia horren beharretara egokitzen joan dira. Herritarrak antolatu izan gara, langile-borrokan, kultur elkarteetan, baina lurraldeari dagozkion erabaki garrantzitsuak, kapitalaren beharren arabera hartu izan dira beti.

Horren ondorioa da gaur egungo egoera postindustriala, inongo beharren planifikaziorik gabe eskualde degradatua utzi duena, lurraldea higiezinen espekulazioaren esku eta guretzat horren garrantzitsua izan beharko lukeen Pasaiako portua herritarren eskuetatik inoiz baino urrutiago. Bitartean, eskualdeko beharrei erantzuten ez dieten proiektu erraldoien aurrean aurkitu izan gara, AHTa, Jaizkibelgo kanpoko portua (2. irudia), Lezoko plataforma logistikoa, lur industrialak etxebizitza-auzo bihurtuak, landa-lurren galera etengabea ere etxebizitza pribatuaren eraikuntzara bideratuz.

Oarso eskualdean lan egiten dugu, eta aurretik egindako diagnostikoak eta jarduera ekonomikoak gurean izan duen bide determinatuak gure egitekoa mugatua dela pentsatzera eraman gaitzake. Hori da ekonomia kontzeptua gure eskuetatik urrundu nahiaren arrazoia; guk gure lurraldearekiko ekonomiaren inguruko erabakiak beste nonbait hartzea naturalizatu dezagun. Bada ez, ekonomia gure esku hartu behar dugu, lurralderako zein ekonomia-eredu nahi dugun erabaki, beste herritar eta eragileekin saretu eta proposamenak egin. Pentsatzea eta egitea dagokigu, eskua eta burua erabiltzea. Ekonomia kontzeptua gure lurraldeetan pentsatu eta jarduera ekonomikoa egin edo alderantziz.

Zehaztuz, asmoa praktikarekin landu eta demostratzen baita. Guk Oarso postindustrialerako proposamen publiko bat egin dugu: Oarsoaldea Lankidetzaren Lurraldea (Etzi. pm, 2017). Bertan ideia orokor bat proposatzen dugu, bi oinarrirekin: Lurraldea eta Lankidetza. Lurraldearen beharretara lotua izango den ekonomia eta lankidetza oinarri izango duena.

Ideiak ekintzekin lagundu behar direnez, 6 proposamen ireki ere egin ditugu: unibertsitate digitalaren aukera, teknologia-auditoriak eta zerbitzu aurreratuen eskaintza, ekintzaileen kooperatibak, laborategi teknosozialak, elikadura-estrategia eta Tokiko Ekonomia Sozialeko Lurralde Antolakundea.

Proiektu batzuk martxan jarri ditugu eragile ezberdinekin, beste batzuk zain daude eta eragile gehiago batu beharko ditugu, gu zazpi langileko kooperatiba gara, baina ideia eta proiektu berriak jasotzen hasi gara, lehen sektorearen estrategia herritarra edo eskualdeko lurren berreskuratze-bankuei lotutakoak batzuk. Hauek edo beste batzuk izan, lurraldean errotutako estrategiaren begiradatik eginak guztiak.

Zer egin?

Bide honetan guretzat oso garrantzitsua da ekonomiaz birjabetu garen herritar eta eragileen sarea osatzea,



2. irudia ~ *Pasaiako kanpo-porturako 2010eko urtarrileko bertsio bat.*
Egilea ~ Ikaur - Eusko Jaurlaritza. Wikimedia Commons. Jabetza Publikoa.

eskualdeko eragile sozioekonomiko komunitarioa sortzeko eta aurrerantzean orain arte gure gainetik hartu dituzten lurraldearen eta ekonomiaren gaineko erabakiak, guk herritarrok hartzeko. (3. irudia)

Helburua argi dugu, bizitzeko lurraldeak sortu behar ditugu. Ez Oarsoaldean bakarrik, baizik eta bakoitzak gure herri eta eskualdeetan, baina argi izan horretarako guztiok parte hartu beharko dugula lan kolektibo horretan. Desjabetzeetatik gatoz, eta desjabetze-prozesuek jarraituko dute, baina espazioen borrokan buru-belarri sartu behar dugu. Lurrak elikadura-ekoizpenerako babestu behar ditugu, monokultiboak suntsitutako basoak, komunal bihurtu behar ditugu; hiri-espazioak bizigarri egin, denok ondo bizitzeko; dena, ekonomia-lankidetza horretan garatuz.

Badugu zer egin, tokian toki landutako proiektu eraldatzaileei merezi duten izaera unibertsala emanez. Ekonomia jendartearen eta lurraldearen beharren ikuspegitik lantzen badugu, ideiak errealitate material eginez, guztia guztiontzat izango da.

///

Bibliografia

Economipedia (2018): <http://economipedia.com/definiciones/economia.html>, bistaratutako eguna: 2018-10-08.

Marx, K (1867): *Das Kapital. Kritik der politischen Oekonomie*, Verlag von Otto Meisner, Hanburgo.

Harvey, D (2006): *Spaces of Global Capitalism. A Theory of Uneven Geographical Development*, Verso Books, Londres.

Federici, S (2017): *Caliban eta sorgina*, Elkar, Donostia.

Etzi.pm (2017): <http://etzi.pm/2017/06/oarsoaldea-lankidetzaren-lurraldea/>, bistaratutako eguna: 2018-10-08.



3. irudia ~ *Etxebizitzak eraikitzen Errenteriako Alaberga auzoan.*
Egilea ~ Paco Marí. Wikimedia Commons. CC BY-SA 3.0.